Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2025eko ekainaren 18ko 17:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldúa Ortiz de Guzmán eta Teresa Bidaurreta Azcarate zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Enrique Garralda Erro eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute.

Gari zerrendari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Jiménez Rey zinegotziak bilkura grabatuko duela jakinarazi du.

1.- 2025eko MAIATZAREN 14ko ETA 29ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko maiatzaren 14an eta 29an egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- 2025eko MAIATZAREN 10etik EKAINAREN 13a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2025eko maiatzaren 10etik ekainaren 13ra eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.- 2024ko KONTUAK ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du gaur izandako Kontu Batzordean azaldutakoarekin bat etorritik eta beste argibideren bat eskatu ezean, bidezkoa dela 2024ko ekitaldiko kontuen espedienteari hasierako onespena ematea.

Aitortutako eskubide garbiak 1.765.026,93 € dira, aitortutako obligazio garbiak 1.459.801,43 € eta diruzaintzako gerakina 1.407.182,69 €.

Bidaurreta zinegotzi andreak hartu du hitza eta adierazi du espedienteak ikusteko bi egun besterik ez dutela izan eta ezin izan dituztela behar bezala aztertu, eta ez zaiola bidezkoa iruditzen batzorde bat egitea bilkura hasi baino pixka bat lehenago.

Aho batez erabaki da, bilkurako espedienteak dagoen 2024ko kontuen txostena hasiera batean onartzea eta jendaurrean jartzea hamabost egunez alegazioak aurkeztu ahal izateko.

4.- 2025eko AURREKONTUAREN ETA HURA GAUZATZEKO OINARRIEN HASIERAKO ONESPENA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta 2025eko ekitaldiko aurrekontuaren espedienteak dagokionez azaldu du espedienteak batzordean ere aztertu dela, eta, beraz, behin-behinean onartu behar dela. Hala ere, aldez aurretik, 2025eko aurrekonturako prestatu duen aurreikuspenei buruzko memoria irakurri du. Hona hemen memoria horren testua:

ALKATETZAREN MEMORIA 2025EKO AURREKONTUAK

Legealdi honetako bigarren aurrekontu hauetan, aurrekontu eraginkorrak, gardenak eta operatiboak lortzeko egindako lana ikus daiteke.

Gobernu talde honentzat garrantzitsua da aurrekontuak lan tresna baliagarria izatea, urteko udal plangintzan lagunduko diguna, baina baita eguneroko lanean ere.

Hori dela eta, aurrekontu-partida espezifikoak sortzen ari gara, eraginkortasuna hobetzen laguntzeko. adibide gisa, kulturako eta kiroleko diru-laguntzen ordenantzarekin lotutako aurrekontu-partidak jar daitezke, ordenantza horren aplikazioa eta eraginkortasuna hobetzen lagun diezaguten, dagokion arloko lan-saioetan ikusi zen bezala.

Bestalde, aurrekontu hauetan ikusten da lan-aukera berriak zabaltzen eta bailaran turismoa sustatzearekin lotutako proposamenak sustatzen ari garela; horren adibide dira Sorogaingo aterpetxearekin lotutako partidak, bai inbertsio berrien ikuspegitik, bai energia-auditoriaren ikuspegitik; bai eta interpretazio-zentro berria martxan jartzearekin lotutako udal-inbertsioak ere. Inbertsio hauekin batera, aterpetxeak funtzionatzeko modu berriak bilatzen ari gara.

Aurten, DLZPri lotutako proiektuak ere egingo dira. Proiektu horien zenbateko ekonomikoak iazko aurrekontuan sartu ziren, baina 2025. urte honetan gauzatuko dira (iaz funtsak erabilikok dira eta, hortaz, aurrekontu-aldaketak aurrekontuak onartu ondoren planteatuko dira).

Turismo Elkartarekin dugun hitzarmeneko partida ere mantenduko dugu, ibarra turistikoki bultzatzeko lan horretan aurrera egiteko lanean jarraitzea espero baitugu, oraindik lan asko egiteke dugula jakitun baikara.

Era berean, 2025 honetan Parke Mikologikoarekin lotutako aurrekontu-sail berri bat dugu, informazio eta zabalkunderako materiala berritzeko, gure bailarako beste balio turistiko handienetako bat dela uste baitugu.

Horrek ez du esan nahi lehen sektorea dinamizatzeko aurrekontu-partidei eutsi ezin diegunik, larreak eta abeltzaintzako azpiegiturak mantentzeko eta baso-jarduketak egiteko ekintzen bidez.

Aurten ere bailarako etxebizitzarekin zerikusia duten ekimenak babesten jarraitu nahi dugu, kontzejuekin sinatutako lankidetza hitzarmenen bidez, irtenbide berriak aztertuz eta udal hirigintza plan berriaren idazketa faseari helduz.

Era berean, gure bailara eta Artzibar lotzeko proiektua bultzatuko dugu, Esnoz eta Lusarreta lotzen dituen pistaren bidez. Horretarako, EHBilduk Nafarroako aurrekontu orokorreari aurkeztutako emendakin izendun baten babesa dugu, eta udal honek gastuaren zati bat bere gain hartuko du, dagokion kontzejuarekin elkarlanean, beste batzuetan bezala, proiektua bailara osorako interesekoa dela uste denean.

Bestalde, eskualdeko Berdintasun Zerbitzuari dagokionez, aurrekontu-sail berri bat dugu, eta horrekin Berdintasun Plana egin ahal izango da, Zerbitzu hau martxan jartzen ari den lana eta ekimenak osatzeko. Kasu honetan ere EHBilduk Nafarroako aurrekontu orokorreari aurkeztutako emendakin izendun baten babesa dugu.

Aurrekontu hauetan ikus daitezkeen beste partida berri batzuk Adikzioen Tokiko Planaren esparruan egin beharreko ekintzekin lotutakoak dira, eta iaz hain balorazio ona izan zuten ikuskaritza pertsonalei jarraipena ematea dute helburu.

Bestalde, aurten berriro ere aurrekontu partida bat daukagu parte hartze prozesurako, gure bailararako etorkizuneko plan estrategiko bat egitea ahalbidetuko duena, garrantzi handikoa iruditzen zaiguna.

Proiektu horiek guztiak aurrera eramateko eta ohiko zerbitzuei eusteko, bai eta udal honek eskaintzen dituen dirulaguntzen deialdiei eusteko ere, diru-sarrerara nahikoko partidak ditugu.

Diru-sarrerara arruntez gain, Kintoko Mankomunitatean parte hartzetik eratorritako diru-sarrerak ditu Udalak, bai eta oihan-aprobetxamenduak eta hainbat alokairu ere. Horri guztiari dirulaguntzen deialdietako funtsak gehituko zaizkio, horiei dagozkien proiektuak aurkeztea aurreikusita baitago. Puntu honetan, Nafarroako Gobernuak sail ezberdinek diru-laguntza lerro berriak ikertzeko egin duten lana ere azpimarratu behar da.

Azkenik, eta iaz bezala, dokumentu honi dagokion genero eraginaren azterketa egingo zaio. Egindako mota honetako lehen txostenak, berdintasun politika publikoen hobekuntzan aurrera egiten lagunduko diguten lehen ondorioak eskaini dizkigu.

Beharrezkoa ikusten dugu lan ildo honekin jarraitzea, bere genero ikuspegia hobetuko duten aurrekontuetarantz urratsak ematen joan ahal izateko.

Onartu aurretik, alkateak bosgarren puntuarekin lotuko den edo dagokion txostenarekin aurrekontuak azalduko diren galdetu du. Idazkariak adierazi du lehenengo aurrekontuak azalduko direla. Alkate andreak adierazi du lan handia egin dela 6. arloan, lan-saio bat baino gehiagorekin, eta hori guztia jaso dela dokumentuan, nahiz eta azken orduko ñabardura batzuk aldatu diren. Idazkariaren txostena azaltzen hasi baino lehen, alkate andreak Bidaurreta zinegotziari eman dio hitza, nahi izanez gero oharrak egin ditzan. Zinegotziak esan du orokorrean ongi daudela, baina bere taldeak uste du Esnotzi dagokion partida (35.000 €) justu samar gelditzen dela, kontzejuak diru dezente jarri behar duelako.

Nuño zinegotziak hartu du hitza eta esan du lehengoan arloaren bilera izan zutela, eta kontua da alde batetik beheratzen saiatu zirela, baina ez zuela merezi, eta kontzejuarekin bilera bat egiteke dutela gaiari buruzko iritzia eman dezaten.

Idazkariak hartu du hitza eta aurrekontuaren espedienteari dagokionez, adierazi du aurrekontuaren amaieran aurrekontuaren egonkortasunari buruzko dokumentua dagoela. Honako hau adierazi du:

Finantza-iraunkortasunaren eta aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak hiru dira: aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa, gastuaren araua eta finantza-iraunkortasunaren araua. Erroibarko aurrekontuaren kasuan, egonkortasun-araua beteko litzateke, baina ez gastuaren gehieneko mugarekin, gastu finantzarioaren aurreikuspenak ez baitu gainditzen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 30. artikuluan araututako gastuaren muga. Gastu konputagarria kalkulatzeko, 4. kapituluko diru-laguntza guztiak eta 7. kapituluko diru-laguntzak kendu dira, aurreikusitako gastuaren arabera (finantzaketa-koefizientearen arabera). Hala ere, aurrekontua onar liteke, nahiz eta ohartarazten den aurrekontua 2025eko likidazioan aurreikusitakoaren arabera exekutatzen bada, gastuaren araua ez dela beteko, eta, hori gertatzen bada, Udalak plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko duela, eta plan horren orde, 2/95 Foru Legearen 242 artikulua 2 apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira, kontu-hartzaitzako funtzioak betetzen dituen organoaren osoko bilkurari jakinarazi ahal izango zaiola. Horri guztiari gehitu behar zaio aurrekontuan sartzen ez diren aurreikusitako prebisioak aurrekontu-aldaketa egokien bidez sartuko direla eta gai zerrendako

bosgarren puntuan sartuak daudela, gastu handiagoa eragingo dutela, eta horrek ekitaldiaren likidazioaren egonkortasunari eragingo diola.

Azken batean, posible da 2025eko aurrekontua onartzea, idazkariak adierazitakoa kontuan hartuta eta horretaz jabetuta.

Udalkideek txostenari buruz egindako galderak argituta, Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko urtealdiko aurrekontuaren txostena hasiera batean onartzea, 1.524.426,00 eurotan, haren izapideari jarraitzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du beharrezkoa dela aurreko puntuarekin lotutako aurrekontu-aldaketa hauek onartzea, iaz DLZren proiektuak finantzatzeko jasotako funtsak gauzatu gabe geratu baitziren, eta 2025eko ekitaldi honetan gauzatu direla. Hori dela eta, gastua ez da aurrekontuan agertzen, baina dagozkion aldaketen bidez, zenbateko horiek 2025eko aurrekontuan sartuko dira, eta, beraz, partida horiek erabili ahal izango dira.

1.- 2025EKO AURREKONTU OROKOR ETA BAKARREAN KREDITU SOBERAKINAK SARTZEA. HASIERAKO ONESPENA.

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4320 6900000	PSTD SUTEEN PLANA	17.639,91

ALDAKETAK OSOTARA	17.639,91
-------------------	-----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORRETARAKO SOBERAKINA	17.639,91

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>	
-------------------------------------	--

GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAUNA, ATXIKITAKO FINANTZAKETAREKIN	17.214,55
--	------------------

**2.- 2025EKO AURREKONTU OROKOR ETA BAKARREAN KREDITU
SOBERAKINAK SARTZEA. HASIERAKO ONESPENA.**

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4320 6900001	PSTD BIDEAK	62.129,84

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	62.129,84
--------------------------	------------------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORRETARAKO SOBERAKINA	62.129,84

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>	
-------------------------------------	--

GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAUNA, ATXIKITAKO FINANTZAKETAREKIN	62.129,84
--	------------------

3.- 2025EKO AURREKONTU OROKOR ETA BAKARREAN KREDITU SOBERAKINAK SARTZEA. HASIERAKO ONESPENA.

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4320 6920000	PSTD SOROGAINGO DIGITALIZAZIOA	99.891,55

ALDAKETAK OSOTARA	99.891,55
-------------------	-----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORRETARAKO SOBERAKINA	99.891,55

FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA	
------------------------------	--

GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERA KINA, ATXIKITAKO FINANTZAKETAREKIN AFECTADA	99.891,55
---	-----------

Udalbatzak erabaki du aho batez proposatutako aurrekontuko aldaketa onartzea.

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsitzat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

6.- 2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA ONESTEA.

Remiro Esnozек alkateak 2025eko plantilla organikoa azaldu du, bai eta idazkariak 2022an sortutako aldizkako langile finkoen lanpostuari buruz egindako txostena ere. Bitarteko aldia igarota, bere garaian erabaki zen bezala, beharrezkotzat jotzen bada eta, beraz, Udalaren egituraren parte bada, bidezkoa da lanpostua lehiaketa-oposiziora ateratzea. Eta gauza bera garbiketaz arduratzen den zerbitzu anitzetako langile lanpostua, egoera berean baitago.

Aho batez erabaki da 2025eko plantilla organikoa hasiera batean onartzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2025eko PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostuen zerrenda

1.- Funtzionarioak

1.1.Lanpostua: zerbitzu anitzetako langilea (arduraduna) Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne igoera). Maila: D. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: 35,77%. Lanaldi osoa. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Gida baimena B mota.

2.- Langile finkoak.

2.1.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Lanaldia 71,44%.

2.2.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. %30,20. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Lanaldia: %71,44. Lanaldia 71,44%.

2.3.Lanpostua: Zerbitzu anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: %8,77, Lanaldia: %43,63. 43,63%.16 ordu astero.

2.4.Lanpostua: Zerbitzu anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1 Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 15%. Lanaldia 100%. Araubide Juridikoa. Lan araubide finko jarraigabea. (Arau osagarriak: lanpostuak izaera jarraigabea dauka eta epealdia apiriletik azarora izanen da, eta egin beharreko lanak mendiaren garbiketa, bazkalekuen kontrola eta zerbitzu anitzetako langile gisa zerbitzuan egon daitezkeen bestelako beharren arabera lanak). Euskara maila: B2.

3.- Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udaletako zerbitzu bateratuak.

Kargua: idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: A Maila. Lanpostuko osagarriak: 40%. Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Izenen zerrenda

Funtzionarioak

Zerbitzu Anitzetako Langilea (arduraduna): Xabier Zia Urrutia.

Lan-kontratadun finkoak:

Administrari laguntzailea Anabel Erneta Erro:

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Lan-araubideko aldi baterako langileak:

Zerbitzu anitzetako langilea (udal eraikinen garbitzailea): Iker Azkarate Leizabe

Zerbitzu anitzetako langilea. Ruben Salon Chic

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria: Egoera: jardunean.

7.- UR-ZIKLOAREN OBRAK ADJUDIKATZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du bi proposamen aurkeztu direla "Erroibarko uraren hiri-zikloaren digitalizazioa" proiektuko obrak kontratatzeko. 1. FASEKO separata:

TABAR Instalaciones Idustriales de Fluidos SL.

SERTECQ Mantenimiento Integral SL

Kontratazio-mahaiak, txosten teknikoa ikusi ondoren eta baldintza-agiriaren araberrako balorazioak egin ondoren, kontratazio-organoari proposatu dio proiektua TABAR Instalaciones Idustriales de Fluido SL enpresari esleitzea, hura baita eskaintzarik onuragarriena Erroibarko Udalarentzat.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- "Erroibarko uraren hiri zikloaren digitalizazioa" proiektuaren hornidura kontratazioa. 1. FASEko separata" TABAR Instalaciones Idustriales de Fluido SL enpresari esleitzea, ehun eta berrogeita hamahiru mila ehun eta berrogeita bederatzi euro eta laurogeita bost zentimotan, gehi BEZa (153.149,85 € + BEZa).
- 2.- Hartutako erabakia lizitatzailerei jakinaraztea, jakin dezaten eta dagokien ondorioetarako.
- 3.- Esleipendunari hartutako erabakiaren berri ematea, kontratua formalizatu eta sinatzeko, baldintzen agiriko 15. eta 16. klausuletan jasotako agiriak aurkeztu ondoren.

8.- "JAKIAK EHUNTZEN HITZARMENA" ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta Jimenez Rey zinegotziari hitza eman dio proposamena azal dezan eta ondoren onets dadin, hala badagokio.

Jimenez Rey zinegotziak jakinarazi du iaz 500 euroko aurrekontu-partida onartu zela gai horri dagokionez. Adierazi du Irunberrin egindako bilera batean azaldu zietela 500 €-ko kostua izan zezakeela ekimen horrek Zangozako Merindadean dauden erakundeek beste urtebetez jarraitu ahal izateko. Jakinarazi du gaia luzatu dela eta proiektua CEDERNArekin partekatzeko modua hitzarmena dela.

Idatzi den hitzarmenak, hasiera batean, 6 hilabeteko iraupena izango du, urte amaiera arte, ondoren beste finantzabide batzuk bilatzen jarraituko baitute.

Egindako ekintza guztiei buruzko txostena aurkeztu dela adierazi da, batez ere azken ekintzei buruzkoa, interes handiagoa baitute.

Jakinarazi du aurten 476,90 € eman behar direla, eta hitzarmenaren iraupena aurtengo abendura artekoa dela, eta ondoren ikusi beharko litzatekeela zer gertatzen den. Gehienez 4 urtera arte luza daitekeela adierazten da.

Bozketa egin ondoren, aho batez erabaki da hitzarmena onartzea eta sinatzea, eta sinatutako akordioa eta hitzarmena Cederna Garalurri helaraztea.

9.- LGTBI+ ERAKUNDE ADIERAZPENA

Remiro Esnoz alkateak adierazi du Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak proposatutako adierazpena erantsi zaiola deialdiari, eta hura onartzea proposatu du.

Aho batez erabaki da LGTBI+ erakunde-adierazpenarekin bat egitea. Adierazpen horren bidez, Espainiako Gobernuari eskatzen zaio tokiko gobernuei aurrekontu-zuzkidura espezifiko eta iraunkorra emateko, honako gaiak lantzen jarraitu ahal izan dezaten:

- Intolerantziak eragindako erasoen biktimei arreta integrala emateko protokolo espezifikoak, adingabeen, trans pertsonen eta bereziki kalteberak diren kolektiboen babesari lehentasuna emanez

- Udal langileen prestakuntza, batez ere gizarte zerbitzuetan, herritarren segurtasunean eta hezkuntzan, sexu eta genero aniztasunari dagokionez.

- Pertsona guztiekiko elkarbizitza, tolerantzia eta errespetua sustatzen dituzten hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpainen garapena.

Bestetik, Jimenez Rey zinegotziak adierazi du beste proposamenetako bat izan daitekeela, dena delakoagatik, datorren astean INAIren adierazpena iristen bada alkatetzaren ebazpena egin daitekeela, udalbatza osoa ados egonik

Erabaki da bandea heldu den ostegunean jartzea, ekainaren 28a larunbata delako.

10.- ALDAKETA XEHAKATUA HASIERA BATEAN ONARTZEA ZILBETIKO 1 POLIGONOKO 42 ETA 4 LURZATIAK, M^a CARMEN OLONDRIZ HUARTEK SUSTATUA.

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta idazkariari hitza eman dio proposatutako aldaketa azal dezan.

Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du aurkeztutako jarduera eremua Zilbetiko UE-5 exekuzio unitatea dela. Unitatea 1. poligonoko 42. lurzatiak eta 4. lurzatiko hiri zati batek osatzen dute; hirigintza fitxaren arabera, 1.100,42 m²-ko azalera du.

Aldaketaren xedea da titular bakarreko (42 lurzatia) Exekuzio Unitatea mugatzea, iparraldetik mugakidea den partzelatik (4 lurzatia) era independentean egikaritzeko, gaur egun UE5 osatzen duenarekin.

Udal arkitektoaren txostenarekin bat, aho batez erabaki da:

1.- Hasiera batean onestea M^a CARMEN OLONDRIZ HUARTE andreak Zilbetiko UE5 exekuzio unitatea mugatzeko aurkeztutako aldaketa.

2.- Dokumentua jendaurrean jartzea 20 eguneko epean NAOⁿ argitaratuta.

Jendaurreko epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren honakoa egingo da:

2.1. Zuzendutako dokumentua behin betiko onestea.

2.2. Testu bategina behar bezala izapidetuta bidaltzea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Proiektu Estrategikoen Sailera, plangintza-erregistroan sartzeko, DF253/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

11.- ZAPOREAKEN ESKAERA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du, Udalera iritsi den ekimena dela eta Lesbosen nutrizio osagarriarekin zerikusia duela adieraziz Jarraian, Jimenez Rey eta Nuño zinegotziei eman die hitza, horiek baitira gaiaren berri zehatzena dutenak

Jimenez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du otsailean aurkeztutako eskaera dela. Baloratu egin zutela dio baina gara hartan 0,7ko diru-partida agortua zegoen. Hortaz, eskatzaileari erantzun zitzaion esanez proposamena berriro aurkez zezala. Ondoren, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federaziotik (NUKF) abisu bat iritsi zen, elikagaien bankuari dagozkion 500 €-ak kobratuko zirela esanez. Partida horretan Udalak 1.500 € ditu, eta diru horren zati bat proiektuari ematea proposatu zen.

Gaineratu du hasierako asmoa zela gaia 1. arloran eramatea, baina osoko bilkura egitekoa zenez, zuzenean bertara eramatea erabaki zen, erabakia elkarrekin hartzeko. Argitu du asmoa dela, nahiz eta aurkeztutako eskaera 1.200 eurokoa izan, partidak 1.000 € dituela, eta, beraz, proposamena dela eskuragarri dauden 1.000 € horiek ematea.

Berriz ere, alkate andreak hartu du hitza. Remiro Esnoz ek adierazi du hasiera batean 0,7 programako laguntzak kudeatzeko prozedurari buruzko informazioa eman zitzaiela eskatzaileei, bazirudielako proiektuak bat egiten zuela profil horrekin. Hala ere, iraupen luzeko ekimena denez, hurrengo ekitaldirako deialdi hori aukeratzea proposatu zitzaien. Gaineratu du, azkenik, egoera zehatz hori sortu zela, eta, dirua aurrekontuan sartuta dagoenez, proiektu horri esleiri dakiokela.

Proposamena azaldu ondoren, bozkatu egin da, eta aho batez onartu da "ZAPOREAK" proiektuaren eskaera. 1.000,00 €-ko laguntza eman zaie, elikagai-bankuari lotutako aurrekontu-partidari egotzita (elikagai-bankuaren laguntza), eta partida horren erabilgarritasunari egokitu zaio, zeina 1.000 €-koa baita.

12.- IBILGAILUA SALTZEKO BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta adierazi du azken bilkuran NP 300 PICK UP markako eta 9638 GJX matrikulako NP ibilgailua, udal titularitatekoa, enkantera ateratzea erabaki zela. Hori dela eta, gaurko osoko bilkurara ekarri dira enkanter hori izapidetzeko pleguak.

Jiménez Rey zinegotziak adierazi du paragrafo bat dagoela, lehenengo eranskinean zerga-obligazioekin zerikusia duena, eta uste duela ez dagokiola. Adierazi du baldintza-orri honen asmoa dela zerbait egituratua eta idatzia izatea, eta gutun-azalarekin enkanterea egiteko balio izatea, udaletxera etorri eta hura ekarri ahal izateko.

Hainbat zuzenketa eta aldaketa egin dira baldintza-orrian, errazago egiteko eta izapidetza errazteko, eta aho batez erabaki da NISSAN markako eta NP 300 PICK UP markako eta 9638 GJX matrikulako ibilgailuaren salmenta arautuko duten baldintza-orriak onartzea.

13.- BESTERIK

1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

Amavir zahar egoitza

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du azken osoko bilkuran AMAVIR Ibañeta egoitzaren egoera aztertu zela eta bilera bat egingo zela jakinarazi zela. Azaldu du bilera maiatzaren 29an egin zela, eta bertan izan ziren tokiko

erakundeetako ordezkariak, enpresaren ordezkaria eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako zuzendaria.

Jakinarazi du, lehen bilera horretan hitz egindakoaren ondoren, bigarren bilera bat egin zela, eta, bertan, LUSAREA ere sartu dela irtenbideak bilatzeko, despopulazioaren aurkako estrategiaren ikuspuntutik.

Illo batzuez hitz egin dela azaldu du, agian egoitzaren funtzionamenduan lagundu dezaketen proiektu pilotu batzuez. Hala ere, ideia horiek oraindik airean daudela adierazi du.

Jakinarazi du ekainaren 30ean AMAVIR Ibañetaren Administrazio Kontseilua dutela, eta bertan berriro aztertuko dela egoitzaren egoera. Adierazi du tokiko erakundeek Nafarroako Mendekotasun Agentziatik eta Nafarroako Gobernuak Despopulazio Zuzendaritza Nagusitik jasotako babesa emango dutela, zentroak bizi duen egoera konprometituari irtenbideak bilatzeko.

Udalbatza jakitun da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du **Euskara Zerbitzua**

Nuño zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du Zaldia Ortiz de Guzmán zinegotzi jaunaren ordezkari bilera batera joan zela. Jakinarazi du Aurizko Udalak deitu zituela, bertan baitago euskara-teknikaria bere plantilla organikoan, eta haiek onartu behar dutela.

Aditzera eman du Aurizko Udalak lanpostuosagarriaren koefizientea igotzeko proposamena egin zuela; 1990az geroztik, lanpostua sortu zenetik, osagarria %6.73an zegoen, eta 2024an egonkortu zela jakinarazi du, baina bitartean, soldaten igoerak baino ez direla egon, baina ez dela inolako lanpostu-osagarririk aldatu, eta ez dutela bestelako osagarririk. Hori dela eta, udaletako eta inguruko bailaretako beste zerbitzuak nola dauden ikusita (% 20 eta % 25 artean dago), jakinarazi du aurtengo uztailetik aurrera % 20ra igotzea erabaki zela, aho batez. Igoera horrekin Erroibarko Udalari hilean 108,54 € dagokiola adierazi du.

Proposamena udal parte-hartzaile guztiek onartu zuten: Luzaide, Artzibar, Orotz-Betelu, Auritz, Orreaga eta Erroibar.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Remiro Esnoz alkateak eman du informazioa

Sorogaingo Aterpea

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du korporazioa jakinaren gainean dagoela egungo egoeraz eta inguruko bidexken Ibilbide Handiarekin zerikusia duten aurrerapenez.

Bestalde, Sorogaineko aterpetxearen gaia aipatu du. Udala Nafarroako Mendizale Federazioarekin harremanetan dagoela azaldu du, aterpetxearen etorkizunari begira irtenbide posibleak bilatu ahal izateko. Adierazi duenez, behin bisitaren ondorio guztiak jasota, beharrezkoa izango da horren inguruko erabakiak hartzen hastea. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak eman du

Urrobi Partzuergoa

Zaldua Ortiz de Guzmán zinegotziak hartu du hitza, eta jakinarazi du Urrobi Partzuergoak bilera bat izan zuela duela gutxi Nafarroako Gobernuako Industria kontseilari Mikel Irujo jaunarekin. Bilera horretan, Urrobi Poligonoaren handitze posible bati buruzko ikerketa baterako dirua emango zaiela jakinarazi zitzaion.

Bilera hori Udalak Nasuvinsa edo Nafarroako Gobernua poligonoaren parte izateko zuen interesaren ondorioz sortu zela azaldu du. Bere garaian, Nasuvinsak adierazi zuen ez zuela dirurik eta ez zuela interesik poligonoan. Adierazi duenez, bilera bat izan zuten, eta, bilera horretan, poligonoa handitzeko azterketa bat egiteko dirua lortu dute. Azterketa horretan, Nafarroako Gobernuak edo Nasuvinsak habi-nabeak egin ahal izateko beste nabe bat egin ahalko lukete. Azterketaren kostua 14.900 €-koa da (15.000 € inguru).

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2025-2026 Baso Jarduerak

Modu berean jakinarazi du baso jarduerentzako dirulaguntzen deialdia argitaratu dela. 4. Arloaren bilera uztailaren 2an izango da, 16:30ean, eta Basarteako Gregori etorriko da. Norbaitek ideiak edo proposamenak baditu, egun hori baino lehen aurkezteko eskatu du, argitu eta bileran kontuan hartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:35ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.